



217/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 27KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAKO ADMINISTRARI LAGUNTAILE ETA ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA, PLANGINTZA ETA KUDEAKETAKO ZUZENDARIORDETZAKO ADMINISTRAZIO ETA LANGILEEN ERREGISTRO ZERBITZUAN, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUA: ADMINISTRARI LAGUNTAILEA ETA ERABILTZAILARENTZAKO ARRETA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Giza Baliabideen Zuzendaritza, Plangintza eta Kudeaketako Zuzendariordetzako Administrazio Zerbitzua eta Langileen Erregistroa.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE; derrigortasun-data: 2007/06/01.

BALDINTZAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota egon ezean).

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila bereko edo beheragoko kategoria batekoa izatea.
- Karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-kontratu finkorik ez izatea, ez eta administrari laguntzaile edo erabiltzaileari arreta emateko izendapenik ere, izendapen edo kontratu horrekin zerikusia duen administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde batera atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean badago, egoera horretan urtebete baino gehiago jarraian egotea.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa eta deitutako azken EPEko kategoriaren deialdiko oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-eskakizunak izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.



Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetan, administrari laguntzaileen eta erabiltzaileei arreta emateko kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota ez badaude):

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendaritzari (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz) zuzendu beharko diote eskabidea, datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako "Curriculum Vitae" arekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta dutenek izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitzen jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

1. – Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. – Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. – Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideen Hautaketa eta Horniketa zuzendariordea edo haren ordezkaria buru dela, eta Plangintza eta Kudeaketako zuzendariordeak, Atal Korporatiboko buruak eta Horniketa Zerbitzu Korporatiboko buruak (azken horrek idazkari gisa jardungo du) osatuko dute.



HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek garai eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 27a

 **Osakidetza**

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA